

...eta **kitto!**

808 zkia. 2012-VI-1

ASTEKARIA



ELKARRIZKETA JOSU IBARGUTXIrekin

Argentinara justizia bila

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean





RPS 04/02


IRAZABAL

clínica dental

DOKTOREAK: Antonio Murillo / Ainhoa Zulueta / Susana Sierra / Maitane G. Iñiguez

hartz-zuritzea

**Irazabal klinikan
hartzak zurituko
dizugu saio bakarrean**




*Prezio
bereziaak!!!*

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostegunera: 10-14 eta 16-20h / Ostiraletan: 10-14 eta 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BIII
LARRIBI BEZIKETA SAILA



INSTALAZIOA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

(L.H. / F.P. - Erdi mailako ziklo berria)

AURREMATRIKULAZIOA
Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra

**HIRU URTETAN ERDI MAILAKO
BI TITULAZIO LOR DITZAKEZU:**

- Instalazioa eta altzari hornikuntza
- Arotzeria eta altzarigintza

Urtetako Uztailak 5etik 11ra

PRAKTIKAK ATZERRIAN (LEONARDO) NAHIZ BERTAN

Altamira auzoa, Azkoitia • 943 85 21 74 • azkoitia@urola.org

www.urola.org





ARGITARATZAILEA:
 ...eta kitto! Euskara Elkarte
HELBIDEA:
 Urkizu, 11 - solairuartea
 20600 Eibar
TELEFONOAK:
 943 20 67 76 / 943 20 09 18
FAXA:
 943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:
 erredakzioa@etakitto.com
 komunikabideak@etakitto.com
 publizitatea@etakitto.com
Elkartearen E-MAILak:
 elkarte@etakitto.com
 normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu
 Maider Aranberri
 Ekhi Belar
 Jose Luis Gorostegi
 Silbia Hernandez
 Koldo Mitxelena
ADMINISTRAZIOA:
 Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA:
 Koldo Mitxelena
ERREDAKZIO-BURUA:
 Silbia Hernandez
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi
ARGAZKI ARLOA:
 Leire Iturbe, E. Belar
 eta S. Hernandez
HIZKUNTZA ARDURA:
 Juan Andres Argoitia
 Maider Aranberri
PUBLIZITATEA:
 Itziar Albizu
 Belen Ulazia
Tfnoa: 943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA:
 Josu Ibargutxi lagatakoa
BANAKETA-ARDURADUNA:
 Ainhoa Luz
TIRADA:
 8.000 ale
INPRIMATEGLIA:
 GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A:
 ...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA:
 SS/430/92
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*) ez du bere gain hartzen al-
 dizkarian adierazitako esanen
 eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

IRAKIN ERAGIN.- Irakiten ipini. "Hango erateko urak, irakiñ erain biharra dauka". Norbait haserrerazi, bere senetik atera (gaztelera, 'sacar de quicio'). "Irakiñ erain zetsan hainbeste zorakerixagaz".

IRALGI.- Eralgi, galbahetik pasatu. "Iralgi bihar izaten da galbaixan arto-uruna, taluak egitako".

IRATAI.- Igitai. "Aritxuluetanian saltzen ziran irataixak, behin garixak burutu ezker".

IRAULDU.- Eho. "Goiko basarriko errotan ainbat zakukada gari irauldu dabe gaur goizian".

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingaririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mail: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Interneten ere matxismoa dugu non-nahi, eta feminismoaren aurkariak feministek baino zarata handiagoa ateratzen dute. Twitter eta Facebooken erabiltzaile gehienak emakumezkoak izanda ere, jarraituenak gizonzkoak dira. Hori horrela da emakumeok eremu publikoan segurtasun gutxiago dugulako eta gizonen aldetik epai gehiago sufritzen ditugulako. Azaroan mikromatxismoaren inguruko arrakasta handiko artikulua idatzi genuen Ander Izagirre lankideak eta biok: nik irain sexistak jaso ditudan bitartean ('puta aurpegia' nuela eta bar), berari gehienez 'mozolopintoa' deitu diote"


(June Fernández, "Pikara" magazinaren sortzailea)

"Une honetan oso gutxi dakigu Parkinsonaren gaitzari buruz eta ez gaude gaixoei terapiak planteatzeko moduan. Ikerketa asko egin dira Parkinsonaren zergatiak bilatzeko, baina Alzheimer inguruan gaixotasunera eramaten gaituzten faktoreetako asko ezagutzen diren moduan, Parkinsonaren inguruan urruti gaude horretatik eta askoz gutxiago dakigu. Parkinsonaren gaitzari aurre egiteko terapia sortzeko urrutiago bagaude ere, azkenaldian, dena dela, hainbat entsegu egin dira fetu-ehuna erabiliz Parkinson gaixoei eta irailean analisi kliniko horiek parametro onenetan egiteko asmoa dugu"

(Ernest Arenas, ikertzailea eta neurobiologoa)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Ikaslien proposamenak plenuan

EGUAZTEN GOIZIAN PLENO BEREZIXA HARTU EBAN UDALETXEKO PLENO ARE-TUAK, Eskolako Agenda 21 programiari jarraituta. Debegesak eskualdian koordinatzen daberen Eskolako Agenda 21 programan gure herriko 10 eskolak dihardue parte hartzen: Amaña, Arrateko Andra Mari (Urki), Urkizu, San Andres, La Salle Isasi, Juan Antonio Mogel, Itzio DBH, Mogel Isasi, La Salle Azitain eta Uni Eibar-Ermua. Danera 3.000 bat ikaslek aurten mugikortasunarekin lotutako gaixak landu ditue eta,

bestiak beste, egoeriaren gaineko diagnostikua egin dabe, herrixan zein euren ikastetxietan dagoazen arazuak identifikautu eta hórrendako konponbidiak proposautu. Hain zuzen be, ordezkari politikueri presentautakuak ikasliak klasekolanetan jaso dittuenak izan ziran. Bestiak beste, herriko toki batzutan zebra-bidiak ipintzia, herrixan traban dagoazen oztopuak kentzia, bigarren illaran aparkatzia debekatzia eta bidegorriza eta bizikletan ibiltzeko tokixak preparatzia eskatzu zetsen zifnegotzixeri.



Maritere Osoro hil da


HILLAREN 24-AN DONOSTIAN HIL ZAN MARI TERE OSORO, luzaruan gaixorik egon ostian. Eibartarra 70ko hamarkadaren amaiera partian dietetika, sexologia, psikologia eta eskulan klasiak antolatzen lehenetarikua izan zan eta, hortik aparte, Argatxan Famelixa Formaziñorako zentruko zuzendarixa be izan zan.



Alkatia plakia erakusten. / EKHI BELAR

Bonbardaketak gogoratzeko plakia

EGUAZTENAZ GEROZTIK UDALETXIAK PLAKA BARRIXA DAUKA FATXADAN: 1937ko bonbardaketetan hildakuak gogoratzeko plakia erakusteko ekitaldixan De los Toyos alkatiak, Antonio Rivera Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordiak, J. Gutierrez historialarixak eta bonbardaketan 75. urteurreneko ekitaldixen programaziñuan parte hartu dabenetako askok hartu eben parte. Plakan "Eibarrek pairatu zituen bonbardaketetan hil ziren pertsona guztien omenez. 1937ko abuztua- 2012ko apirila" irakorri leike.



Eguzkixaren Europako Eguna

EIBARKO INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO UNIBERSIDATE ESKOLIAK (EUITI) Eguzkixaren Europako Eguna ospatuko dau bixar. Udalaren laguntasunarekin, Untzagan hainbat erakustaldi egingo dittue, 11.30xetatik 13.30xetara: bestiak beste 1.4 eguzki-sukaldia, Stirling eguzki-motorra, eguzki bidezko auto-elektirik, eguzki-panel bittartez sortutako eta hidrogenoz elikatutako autua eta eguzki-panel fotoboltaikuak egongo dira ikusgai. Irailaz geroztik Energixa Barriztagarrixen Ingeniaritza Gradua eskintzen dihardue EUITIn eta bixarko eguna unibersidadia herria gerturatzeko aprobetxau nahi dabe.



GENARO AZKARRAGA FULDAIN
(2012ko maiatzaren 26an hil zen, 86 urterekin)

**FAMELIXA BURUA JUAN ZAIGUN HONETAN
AZKEN MOMENTURA ARTE GUGANDIK
EGINDAKO GUZTIA ESKERTU NAHI DEUTSUGU**

Maittasunez, zure senidiak

Alkatiak urtia positiboki balorau dau

MIGUEL DE LOS TOYOS ALKATIAK AURREKO BARIXAKUAN EMON EBAN ADITZERA AGINTALDIKO LEHEN URTIAREN

gaiñian egitten daben irakorketia eta, orohar, modu positibuan balorau eban azken hilliotan egindako biharra. Krisixak gogor astintzen diharduan arren, udalak "egonkortasuna" lortu dabela azpimarratu eban eta, aurrekontuan egin biharreko murrizketa guztien gaiñetik "herritarreri eskintzen jakuezen zerbitzuak ez ahultzia edo kalteztzia" lortziari be aparteko garrantzixia emon zetsan. Halanda be, "krisixak Udalaren kudeaketa-gaittasunari oso modu berezixan eragitten detsa-



Alkatiak urtia amaittu aurretik aurrekontua murrizteko premiñia ikusten dau. / SILBIA HERNANDEZ

la" onartu eban eta urtia amaittu aurretik aurrekontua oindiok gehixago murrizteko premiñia izango dabela pentsatzen dau.

Etika eta balixuen gaiñeko mahai-ingurua

MARTITZENIAN 11.00-ETATIK AURRERA ARMERIXA ESKOLAKO ARETO NAGUSIXAN Federico Mayor Zaragozak, Jonan Fernandezek eta Angel Toñak etika, balixo eta hezkuntzaren gaiñian egingo dabe berba, Mariano Ferrer kazetarixak moderauko daben mahai-inguruan. Ekitaldixa Mendeurreneko



programaziñuaren barruan antolatu dabe eta nahi dabenak izango dau parte hartzeko aukeria, baiña antolatzaillak aurretik abisatzia gomendatzen dabe (637559492 telefonuan edo centenario@armeriaeskola.com helbidera idatzitta).

Murrizketen kontra

ATZO EGUARDIXAN ALKARRE-TARATZIA EGIN ZAN UNTZAGAN, udaletxe parian, LAB sindikatuak deittuta. Bertan batutakuak Madrigo gobernuak sektore publikuan ezartzen diharduen murrizketen kontra protestau eban, beste herri batzuetako plazetan egiñ eban moduan.



Beste herri askotan moduan, Madrigo gobernuak sektore publikuan egitten diharduen murrizketak salatu eban. / EKHI BELAR

a u t u a n

ABONTZAKO SARIXAK

Abontzako Itturixak antolatutako jaixetako txapelketetan sarixa jaso ebanak Jabi Arakistain eta Joseba Apellaniz (tortilla, Mahatsondok eskindutako ardaudastaketia), Angel Garate eta Luis Peña (igel-toka eta toka, Solera Eibarresak eskindutako ardaudastaketia) izan dira. Txosnetan saldutako txartel irabazliak 4.062 (Villa Pasiegan egonaldixa) eta 235 (Krabelin hotelian egonaldixa) izan dira.

T. ETXEBARRIA BIDEUAN

Toribio Etxebarria jaixo zala 125 urte beteko dira aurtan eta, horregaittik, aurtengo Toribio Etxebarria sarixak banatzeko ekitaldixan Eibarko seme kuttunaren gaiñeko bideo laburra eskindu eban eta nahi dabenak bideua ikusteko aukeria eukiko dau interneten, Ego Ibarra batzordiaran webgunian, argitalpeneri eskindutako atalian.

GURASO.COM


Hainbat gairen gaiñian gurasuak euki leikiezen informaziño premiñak asetzeko asmoz sortutako guraso.com webgunian, bestiak beste, gurasuendako interesgarrixak diran artikuluak, albistiak eta bestelako loturak eskuragarri dagoz.

Luis Mari Aguirre Bildosola

Maiatzaren 27an hil zen, 65 urterekin

**EZ AGURRIK,
EZ ADIORIK
GERO ARTE BAKARRIK**

zure familiakoak



asteko
%23'7
datua

Kopuru horretaraño heltzen da gure herriko 65 urtetik gorakuen portzentajia. Euskadin eta Gipuzkuan %19'5aren ingurukua da batzbesteko hori, baiña Eibarren lau puntutan gaintzen dogu kopuru hori. Probintzian be, guria da -Olaberriaren atzetik- proporziñuan jende nagusi gehixen dakan herrixa.



Erretziari lagatzeko laguntasuna

ATZO TABAKO BARIKO MUNDU EGUNA IZAN ZAN eta, horren harira, Debabarreneko Erakunde Sanitarixko Integraukoak (ESI-k) eta Minbizixaren Kontrako Alkartekuak egunotan herririk herri dabil-tza, erretzaillieri arreta integra-la emoteko asmuarekin. Eibarren eguazten goizian egon ziran udaletxe parian, tabakua laga nahi dabeneri informazi-ñua eta bestelakuak banatzen.

URTEKO BATZARRIAN ERABAGITTAKUARI JARRAITUTA, ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDIENDA-KO urteko kuotak honetxek izatia erabagi zan: 4'52 euro 16 urtetik beherakuendako, 10'16

Foru Aldundiaren programiaren aurkezpena

GIPUZKUAKO FORU ALDUNDIXAK BERE PROGRAMIA PRESENTAUKO DAU GAUR 19.00etan Armerixa Eskolan. Aldundiko departamendutako ki-diak hartuko dabe parte, eta datozen urtietara begira dittuen lehentasun eta ekintza nagusixak zeintzuk diran azalduko dittue. Ekimenak herrittaren parte-hartzia sustatzia billa-tzen dau eta Eibarko Bilduk herrittarrak bertan



parte hartzera animau nahi dittu. Izan be, aurkez-penaren ostian, herrittarrak galderak egiñ eta ekarpenak azaltzeko aukeria izango dabe.



Eguazten arratsaldean ateratako talde-argazkia. / EKHI BELAR

Medikuntza Zentruaren 25 urtiak

URKIZUKO DORRIETAN DAGUAN EIBARKO MEDIKUNTZA ZENTRUA 1987xan sortu zala 25 urte bete dira eta, hori ospatzeko, eguazten illuntzian ekitaldi berezixa euki eben zentruan bertan: aurretik bertan jardun daben medikuak gaur egunian biharrian diharduenekin batera zeozer hartu eta kontu kontari jarduteko auke-

ria euki eben. Dana dala, urtemugaren gaiñeko ospakizunak ikasturte barrixarekin batera, urria aldian hastia dake aurreikusitta. Zentruko ardu-radunak aurreratu dabenez, sendagille batzure-kin hartu-emonetan hasitta dagoz, datorren ur-teko ekaiñera bittartian hitzaldixak eskintzera juateko.



Lekeittioko monjekin

HILLAREN 22-XAN, SANTA RITA EGU-NIAN ERRETRATUAN IKUSTEN DITTU-ZUEN Eibarko 15 andra Lekeittiora juan ziran, urteroko ohitturiari eutsi eta hango Agustinas Recoletas monjeri bisitia egitte-ra. Exkursiñuan parte hartu ebenak esan deskuenez, aurreko urte batzuetan ixa 40 laguneko taldia osatzera aillegau dira, bai-ña urtiak aurrera egitten daben neurrixan animatzen diranen taldia txikitzen doa.

...eta kitto!-ko kuoten ordainketia

euro langabetu, ikasle, jubilau eta etxekoandrendako eta 40 euro biharrean daganendako. Alkarteko administradoriak bazkidieri abisau nahi detse ekaiñaren 15ian kobrauko dit-tuala 2012ko bazkide kuotak.

Edozelan be, eta egoera eko-nomikua zelakua dan kontuan hartuta, egun horretarako or-dainketia egittia txarto etortzen jakueneri, epe bittan pagatzia nahi dabeneri edo ordainketia-rekin lotutako beste edozer ko-

mentau nahi dabeneri lasai be-rarekin kontaktuan ipintzeko eskatzen detse, 943200918 te-lefono zenbakira deittuta (Mari-sol) edo e-mailla mari-sol.etakitto@gmail.com helbi-dera bialduta.


Gaur egunian umien eta gurasuen artian 44 urte egon ahal dira gehixenez adoptaziñua egitteko. Eusko Jaurlaritzak dekretua aldatu nahi dau adiñaren mugia kentzeko, baiña Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiako diputaziñuak neurrixaren kontra agertu dira.

Adoptatzeko adin-mugia kenduko zenduke?



ANDREA CASTILLO
18 urte
ikaslia

Pertsonaren arabera hartu bihar-ko ziran neurrixak. Guraso bat zaharregixa izan leike ume bat adoptatzeko eta edade bardiñakin beste bat ondo egon leike. Bakotxaren ardurak hartzeko kapazidadia hartu bihar-ko zan kontuan, zelan dagan eta abar.




ENEKO BENGOETXEA
16 urte
ikaslia

Nik bai, adoptatzeko adin-mugia kenduko neuke. Edozein edadekin adoptatzeko aukeria jarriko neban.

BEATRIZ BAGLIETTO
66 urte
jubilaua

Umiaren bihar-ko euki bihar dira kontuan edozerren gaiñetik, gurasuen adiña kontuan hartu barik. Gero, adopziñua egin nahi dabena zelakuak diran ikusi bihar-ko zan, zelako egoeran dagaizen eta hori danori.



JUAN JOSE URZELAI
47 urte
elektrizistia

Ez neuke mugarik ipiñiko umien eta gurasuen edadiaren artian, baizik eta gurasuen adiñaren gaiñian. Izan be, gurasuak heldu leikez edade batera ez dagaizenak fisikoki ondo ume bat eukitzeko moduan. Gatxa da esatia zein adiñetan ipiñi mugia, pertsona bakotxa ezbaridiña dalako.



eitek 

SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Zerbitzu Teknikoa - Gaitu Konponbideak -
Sistemen Instalazio eta Administrazioa - Internet

Urtzaille, 1. (Aurrera edifizioa, C lokala). Eibar
Tel. 943203090. Fax 943204249
www.eitek.net - eitek@eitek.net

EGOITZA NAGUSIA
Bilboko 20 - beheko eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Daba

Tanatorio eta Erusketako labea
Egokien (ligna poligonoz)
Ariketa: eskua eta oheko erretze zentralak
Kokoa - Gaitu - Urtearenko erretze
Eskola hain eskola erretze hain zentralak
Nazio eta Nazioetako irratiz



TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Frankismo sasoiko krimenen kontrako ekimena Argentinara eramán dute Goldatu elkarteak. Maria Servini de Cubria epaileak kasua aurrera eramateko asmoa erakutsi du eta Buenos Airesera frankismoko hainbat testigantza eramán zituzten biktimek. Tartean izan zen Josu Ibargutxi eibartarra.

“EGIA, ERREPARAZIOA ETA JUSTIZIA ALDARRIKATZEA OBLIGAZIOA DA”

“SEGURU NAGO ESPAINIAN EZ DUTELA ESTRADIZIOARIK ONARTUKO”

JOSU IBARGUTXI frankismo sasoiko preso:

“Derrigorrezkoa da frankisten zigorgabetasunarekin apurtzea”

- Nola sortu zitzaizuen Argentinara joateko aukera?

Orain dela 6-8 hilabete, Argentinako epaile batek aurkeztutako frankismoaren aurkako kereilaren albistea agertu zen. Nork jarrita? Argentinako pare bat abokatuk, Ines Garciak eta Darío Rivasek. Baltasar Garzonnek gauza ona egin zuen Argentinan, nahiz eta Euskal Herrian ondo dakigun nolako gauza kaltegarriak egin dituen. Argentinan Garzon oso aupatuta dute, berari esker diktadura zuritzeko egindako Ley de Punto Final eta Ley de Obediencia de Vida deuseztatu zituztelako eta, gaur egun, hango diktadurako presidente, ministro eta abarrak epaiturik daude edo epaitzen dihardute. Argentinan 1976tik 1983ra jasan zuten diktadura faszista, non 30.000 pertsona baino gehiago desagertu ziren. Armadako Eskola Mekanikotik (ESMA) 5.000 gehiago pasatu ziren eta bertatik irteten ziren hegazkinetatik itsasora botatzen zituzten. Demaseko torturagunea izan zen. Guk hori jakinda, Argentinako bide hori hartzea komenigarria zela ikusi genuen (aurretik, Garzon berak ahalegina egin zuen Espainian, baina Auzitegi

Gorenak berehala lurreratu zuen). Bide horretatik, agian, guretzat posible litzateke frankismoaren inpunitate guzti hori deuseztatzea eta trantsizio sasoian exijitu ez ziren erantzukizunak exijitzea. Antolatuta ginen, Maria Servini de Cubria epaile argentinarrak ikusi zuen gauza aurrera zioala, bertako abokatu taldea eratu zen, Madrilan ere eurekin lotura zuten beste abokatu batzuen talde bat egin zen eta istorioa osatu genuen. Prestaketak egiten genbiltzanean Servini epaileak testigantzak jasotzeko eskaera egin zuen eta harrapatuta joan behar izan ginen argentinara. Euskal Herritik Sabin Arana eta biok joan ginen. Harrapatuta osatu behar izan genituen testigantza batzuk ere. Andoni Arrizabalaga (Itziarren semea), Imanol Laspiur (hilda dagoen eibartarra), German Rodriguez (Iruñan 1978an tiroz manifestazio batean hildakoa), Enrique Gesalaga (Burgoseko prozesukoa), Salvador Puig Antich, Humberto Baena, Sabin Arana eta nire testigantzak aurkeztu genituen, besteak beste, eta guztira 46 izan ziren.

- Argentinara joan behar Espainian gertatutako zerbait salatzeke...

Negargarria da benetan. Auzitegi Gorenaren jarrerak berak eta Amnistiaren Legea erdian dagoelako Garzonaren ahaleginak deuseztatzen bere burua nola finkatu zuen, gaur egun ere trantsizioaren emaitzak sufritzen ari garela adierazten du. Amnistiaren Legea frankistentzat egindako Amnistia Legea da. Gu ez ginen Amnistiaren Legeari esker irten kartzelatik, ez ginen amnistiatuak izan, herriaren mobilizazioei esker kartzelatik ateratakoak baizik. Gaur egun, gure fitxa polizialak eta prozesu, sumario eta historial guztia Madrilan dago. Derrigorrezko lana da frankisten zigorgabetasun hori apurtzea eta Amnistiaren Legea deuseztatzea. Hori horrela da ez guk asmatu dugulako, Nazio Batuen Erakundeak (NBE), Nazioarteko Amnistiak (AI) eta egungo Euskadiko Arartekoak Amnistiaren Legea legez kanpokoa dela diotelako. Orain dela 35 urte exijitu behar ziren gauzak exijitzen ditugu, 40 urteko diktaduraren erantzukizunak. Horiek pertsonarekikoak dira, milaka frankista epaitegietan, estamentu militarretan, aparatu polizialean eta administratiboan daudelako txertatuak. Guk argi daukagu, nahiz eta 35 urte pasatu diren,



erantzunkizunak eskatu behar direla, Amnistiaren Legea kendu eta kartzelara joan behar dena, kartzelara joan dadila. Hau ez da mendeku jarrera, diktaduraren kontra hainbat urtetan borrokatu dutenentzat justizia eta duintasuna exijitzea baizik.

- Servini de Cubria epaileari hainbat testigantza aurkeztu zenizkioten. Zein jarrera aurkeztu zuen horren aurrean?

Bai epailearen bai argentinarren harrera oso ona izan zen. Sentsibiltate handia dago han eskubide eta torturari buruz. Servinirekin ia 8 ordu egon ginen. Sabin eta biok Euskal Herrira etorri behar zela esan genion, ez Madrilera bakarrik, Euskal Herria izan zelako tardofrankismoan borroka gehien eman zuena. Beraz, hemengo testigantzak entzun behar dituela pentsatzen dugu. Ulertu zuen eta seguru etorriko zela esan zigun. Ez dakigu noiz (irailean seguru aski) eta zenbat denborarako etorriko den, baina jendea ari da bere testigantzak prestatzen. Hori da nahi duguna, jendea testigantzak prestatzen animatzea eta gurekin kontaktuan jartzea, frankismoan jasan zutena salatzeke.

- Badu nahiko eskumenik Servinik auzi honetan argentinarra izanda?

Nazioarteko lege baten bidez etorriko da Servini. Gizateriaren aurkako krimenak ez dira preskribitzen, ezta genozidioak ere, eta Gerra Zibilean genozidio legea puskatu zen. Eraiketak, fuilamenduak eta tribunal falsuak egon ziren, eta hori guztia epaitzera dator. Berak epeak jarri ditu, 1936tik



Maiatzeko Plazan bertako ama eta amamekin egoteko aukera izan zuen hemendik joandako delegazioak.

1977rainokoa, baina hortik aurrera ere giza-terriaren aurkako urraketak izan zirela esan diogu, Frankoren aparatu guztiak aurrera jarraitu zuelako berak eragindako lege baten bidez, Amnistiaren Legea. Epaileak ezagutzen du istorioa, Argentinan antzeko legeak jarri zituztelako, baina aurrerago beste gobernu batzuk lege horiek konstituzioz kanpoak deklaratu, deuseztatu eta horrekin babestuta zeuden elementu guztiak (polizia, torturazailak, gobernariak...) kartzelan edo oraindik epaitzen daude. Horrelako erantzukizun sozialak dituenak ezin ditu bere eskuak garbitu, are gutxiago 40 urteko diktadura gauzatutako kolpista izanik.

- Espainiako justizia tartean sartuko litzateke auzia aurrera joango balitz?

Espainiako justiziak eragina izango du, baldin eta Servinik estradizioak eskatzen baiditu. Epaiketa, printzipioz, Argentinan egin beharko litzateke eta nazioarteko legeen bitartez estradizioak eskatu beharko dira. Seguru nago, daukagun Madrilgo gobernuarekin, ez dutela estradiziorik onartuko, torturazailak, Frankoren ministroak, Puig Antichen eta Txiki eta Otaegiren eraiketak sinatu zituztenak... bizirik daudelako oraindik. Milaka lagun dago estraditatzeko moduan. Gobernuko justiziak eta Auzitegi Gorenak ez dute lan onik, nazioarte mailan eskandalua izango litzatekeelako. Kontuan izan behar da NBEk esaten duela Amnistiaren Legea ez dela bidezkoa, eta hori kenduz gero frankistak babesgabe geratuko liriteke. Badakigu hamaika oztopo jarriko dizkigutela, baina hori aldarrikatzea, hautsak harrotzea eta gure historiari duintasuna ematea da gure lana. Ezin dugu pentsatu berehalako emaitza emango duenik honek, baina gerora zerbait jasotzea espero dugu. Egia, justizia eta erreparazioa (letra larriarekin) aldarrikatzea obligazioak dira; eta horiek laugarren kontzeptu batekin, inoiz gehiago ez errepikatzea, eta horretarako hau salatu beharra dago.

- Servini irailean etorriko dela aipatu duzu. Zein da zuen eginbeharra orain?

Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Aldeko Euskal Plataforma sortu dugu. Eibarren kristonak eta bi pasatakoak daude, eta komenigarria da ahalik eta testigantza gehien jasotzea epaileari Euskal Herrian zer gertatu zen erakusteko. Gure webgunean bulego bertuala egin dugu, jendeari gauzak nola prestatu behar dituen esateko. Bestela, guregana jo dezatela www.goldatu.org orrian.


“ESMAko bisita hunkigarria izan zen”

- Maiatzeko Plazako ama eta amamekin egoteko aukera izan zenuten Buenos Airesen. Zer moduz?

Hunkigarria izan zen. 35 urte daramatzate ostegunero Maiatzeko Plazan bueltaka. Oso onartuak izan ginen han, maitekor agertu ziren, gure historia guztia ulertzen zuten, guri laguntzeko publikoki adierazpena egin zuten eta beraiekin erronda batean buelta ematen egon ginen.

- ESMA bisitatzeko aukera ere izan zenuten.

ESMAko bisita oso hunkigarria izan zen, benetan zirrargarria. Bertan egon zen tipo batekin ibili ginen. Gaur egun memoria gunea da. Harrigarria izan zen hark erakutsitako sendotasuna, han lau bat urte egin eta anaia han akatu baitzuten. Sei hilabete eta erdi eduki zuten txano batekin buruan, kendu barik, hanka eta eskuak girgilatuta. Golpeak jasotzen zituzten edozein momentutan. Zabaleran 75 cm eta luzeeran metro biko horma-hilobi antzekoetan sartzen zituzten, burua kanpoan uzten zutelarik. Jan ere txanoa kendu barik egiten zuten, komunera torturazailak nahi zutenean eramaten zituzten eta emakumeak nahi zutenean bortxatu.



- Hemen horrelakorik egitea posible dela pentsatzen duzu?

Gizartearen presioarengatik da ESMA memoriaren gunea. Nahiko nuke ltxaurrondoko kartzela eta beste hainbat toki biharko egunean memoriako gune izatea.

Sekula ez da erreza izan norberak enpresa edo negozioa sortzea eta, horregaitik, urtiak dira Debegesan horretara animatzen diraneri laguntasuna eskintziari ekin zetsela. Eureroi esker Debabarrenian orotariko enpresa barrixak sortzen dihardue etenbarik eta, horregaitik, eguaztena egun berezixa izan zan Azittaingo industrialdian dagan garapen agentzixarendako. Hain zuzen be, Ekintzaillien Eguna ospatzeko jardunaldixa eginda, eskualdeko ekintzaillien garrantzixa azpimarratziarekin batera, beste batzuk animatzia billatzen dabe-eta.



Eten barik ekin eta ekin

Ekintzaillien Eguna ospatzeko ekitaldi nagusixa eguaztenian ospatu eben Debegesan. Bertan, beste urtiotan egindakuaren bidetik, Debabarreneneko ekintzaillien biharra eta ahalegiña aitortu nahi izan eben eta, eskualdeko hainbat ekintzaille eta herritarrekin batera, han izan ziran,

bestiak beste, Joseba Palenzuela Mutrikuko alkatea, Miriam Montero Elgoibarko Udaleko ordezkaria eta Maria Jose Telleria Eibarko Udaleko Lan, Berrikuntza eta Garapen Ekonomikorako Departamentuko arduraduna. Enpresen Azokiak ekin zetsan jardunaldixari eta bertan parte hartzen Felix Sánchez (Deba, hestebete salmenta), Atena Mobiliario (Eibar, bulegoko altzarixen salmentia), Estetika Kerala (Eibar, estetika zentrua), Conversia (Eibar, aholkularitza datuen babeserako legia), Atenor (Eibar, zorrotzaille profesionalak) eta Soluciones de Plástico y Magnesio (Ermua) enpresak izan ziran, euren zerbitzu eta produktuak gerturatu ziraneri presentatzen.

Behiñ azokia amaittuta, Juan Angel Balbás Debegesako zu-

zendari nagusixak bertaratutakueri ongietorrixa egin zetsen eta, horren ostian, Isabel Santiago coach eta ekintzailliak, "Pentsamendu berria, errealitate berria, jarduera berriak" izenburuko hitzaldixa eskindu eban. Hitzaldixaren ostian, Ibon Muguruzak eta Esther Velascok hartu eben berbia, Ekingune proiektu barrixa presentatze.

Ekintzaillieri sarixa

Ekitaldixa amaittu aurretik, baiña, Debabarrena Ekinean! eta Bai Industriari! errekonozimenduak banatu zittuen, holan ekintzaillieri eskindutako jardunaldixa biribilduta. Debabarrena Ekinean! sarixetan lehengua, Iraunkortasuna/Nekaezintasuna saillekua, Jasone Osoro kazetari eta idazle elgoibarta-



Enpresa ekintzaillien GIDA BARRIXA

Debegesak Enpresa Ekintzaileen Gida eguneratu dau Ekintzaillien Egunaren harira. Gida barrixak arlo ezberdiñetako 150 enpresatik gora biltzen ditu eta www.debegesa.com webgunian eskuragarri dago, pdf formatuan, "Ekintzaileak" atalian. Bertan gure eskualdeko enpresen gaiñeko informaziñua (helbidiak, telefono zenbakixak, webguniak...) jaso dittue, hainbat ataletan banatuta: ostalaritza, aholkularitza, industria, dendak, informatika, publizidadia, osasuna, edergintza, gremixuak, dekoraziñua eta beste batzuk.



Debabarreneneko ekintzaille asko alkatu zan eguazteneko ekitaldixan. / SILBIA HERNANDEZ

rrak jaso eban. Osorok 2010ian Berbak (www.berbak.net) izeneko enpresa sortu eban, idazle zerbitzuak bezero bakotxaren premiñetara egokittuta eskintzeko.

Plus Ekimena sailleko sarixa, barriz, Mutrikuko Fadi Domitendako izan zan, baiña bera ekitaldira juaterik ez eban izan eta, bere izenian, Mutrikuko kofradixako presidentiak jaso eban. Sarittu eben Balea enpresa-proiektu baxiraren sorreria Debegesak babestu dau eta, horrez gain, Mutrikuko Udalak bultzatu eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saillak diruz lagundu dau. Proiektuak artisau-arrantza, akuakulturia, arrantza-turismua eta industria eraldaketia uztartzen dittu.

Eta talde-lanari emoten jakon errekonozimendua ekitaldixan bertan ezagutzera emondako Ekingune proiektuarendako izan zan, hain zuzen be ekintzaille talde baten eskutik beste ekintzaille batzueri laguntasuna emoteko asmuari jarraituta sortu barri daben proiektuarendako. Bai industriari! errekonozimendua, bestalde, Soluciones de Plástico y Magnesio (SPMG) Ermuko en-

presiak jaso eban, "industria arluan jardutiagaittik eta Debarreneko enpreseri bestela oso gatxa eukiko leukien internazionalizaziñua lortzeko aukeria emotiagaittik".

Ekitaldixa agurtzeko parte-hartzaillieri ardaudastaketia eskindu zetsen Bacoleku ardote-gixak, Heras Cordón upeltegixaren eskutik eta, horrekin batera, Felix Sanchez eta Urkizuko Ogi Berri-ren eskutik hesbetete dastaketia be egiñ eben. Degustaziñua eskindu eben enpresa guztiak Debegesak ekintzaillendako eskintzen daben zerbitzuaren laguntasunarekin sortutakuak dira.



Ekingune proiektua

Eguazteneko ekitaldixan Ekingune proiektua presentau eben eta, ixa jartzeko astixa hartu barik, atzera be altxatu bihar izan ziran sarixa jasotzera. Ekingune Debarreneko ekintzaille talde batek sortu daben ekimena da eta helburu nagusixa alkarlanian oiñarritutako kontaktu-sare modukua eratzia da. Oin momentuan 8 kide edo enpresa dagoz: Eibarko Egaz aholkularitza, Cioka Creativa zerbitzu grafikua, Kerala Estetika eta Mariela AXA aseguruak, Elgoibarko Gesgune eta Jasone zerbitzu grafikua, Debako Quill Events eta Mutrikuko AZT Higie-ne, baiña asmu taldiari kide barrixak gehitzen juatia da. Ibon Muguruzak esplikau desku proiektuaren sorreria zelakua izan zan: "Ekingune 2010ian sortu zan Ekintzaillien Picnic dinamikaren barruan, hau da, baillarako ekintzailliak alkatu eta ikuspuntuak alkartrukatzeko billera moduko batian. Debarreneko ekintzaille talde bat gara eta hasi barrixak diran enpresa zeñ ekintzailliak dittuen premiñetan laguntasuna eskintzeko biharrian jardun nahi dogu". Helburu modura, barriz, "proiektua erreferente billakatzia, ekintzaille ezbaridiñen artian lankidetzat sustatzia, kontaktu-sarea zabaltzen juatia, enpresa bakotxaren lehiakortasunak hobera egittia eta pausoz pauso Ekingune biharrezko egitura, irudi eta sendotasunarekin hornitzia" dake.



Bastida
2012 Araba
Pusharaz

ekainaren
17 an

IRTEERA
09.30

autobusa

BUELTA
19.30

9 euro

J.A. Moge! Ikastolako Gurasoen Elkarteak
...eta kitto! Euskara Elkarteak



Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Beltzake Funeuskadi Eibar
Ostia, 37

Bulgosai
Eskolamaria, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

Funeuskadi
El País de los Funeuskadi

• Eibar • Donostia • Bilbo • Barakaldo • Leizaola • Gernika • Gernika • Portugaletta • Santurtzi • Galdakao • Sodupe • Espinosa de los Monteros

TEEN-
AJEA



Euskal Jaia ez da dantza eta kantua bakarrik.

Kerriko artisavek ere euren txokoa duten egun berezi horretan eta, aurten, estreinekoz egon da bertan Arrate Espilla eibartarra. Laguntzako opariak egiteko hasi zen gantxiloarekin lanean eta, orain bere lanak saltzeko aukera izan du.

ARRATE ESPILLA, artisaua:

“Amama eta amarekin ikasi dut gantxiloa egiten”

- Zelan joan zen azoka eguna? Nolako esperientzia izan zen?

Lehen aldia izateko, oso ondo egon zen. Oso gustora egon nintzen. Jende ugari hurbildu zen bertara, goizeko 10.00etatik, eta eguraldiak asko lagundu zuen. Giro polita zegoen, jende asko kalean, lanpetuta ibili ginen.

- Nola joan ziren salmentak?

Saldu zen zerbait. Nik ez neukan gauza asko, baina inbertitutakoa amortizatzeko bezain beste saldu ahal izan nuen.

- Zelan sortu zitzaizun azokan parte hartzeko aukera?

Jone Perales nire lagunak hiru urte daramatza Euskal Jaian parte hartzen eta Eibart-eko kidea da. Berak bazekien nik hainbat gauza egiten nituela, eta azokan jendea behar zutenez, nire lanak erakutsi eta saltzeko komentatu zidan. Berarekin laguntzen eta abar ibili nintzen, eta baiezkoa eman nion. Ez negoen parte hartzeko ziur,

baina prestatu, gauzatxoak egin eta aurrera jotzea erabaki nuen.

- Nolako lanak egiten dituzu?

Gantxiloarekin hainbat gauza egiten ditut. Adibidez, brotxeak, pultserak edo koilarrak.

- Nondik datorkizu afizioa?

Etxetik. Amak puntua egiten du eta beti ikusi izan dut horrelakoak egiten. Orain dela urte bi hartu nuen nik gantxiloa. Gauzatxoak egiten hasi, eta amama eta amarekin ikasi dut. Beno, amarekin gehiago.

- Azokan parte hartzen duzun lehen aldia dela aipatu duzu, baina bestela zure lanak saltzen dituzu, lagunekin konpartitzen dituzu...?

Egindako lanak oparitzeko hasi nintzen horrelakoak egiten. Adibidez, lagunaren baten urtebetetzea bazen, nik horrelako lanak egiten nituen opari bezala emateko. Orain, azokan egoteko eta bertan lanak saltzeko aukera eduki dut, baina oparitzeko egiten ditut gehien bat. Afizio moduan hartzen dut.

Ketesu 2010 *bulago eta kolektibitatearako instalazio osoak eta materialak*
alternatibak, onak, berberak, fibero optikoak...
bulago materiala enpresetan banatzen dugu
 Euzko Kalea, 12
 48900 Eibar
 RR. BARRIETA-ARRAZOLA
 Fax: 943237868
 email: info@ketes2010.com

Radio Eibar
 CADENA
SER
104.0 FM

Iradi
LORADENDA
 - Lora eta landare natural eta lehorrak
 - Ezkontzetarako lorak
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Euskara, zazpigarren artearen lengoia

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Benito Ansola Sariak antolatu ditu bigarren urtez, Lekeitioko Udala eta Euskal Zine Bileraren laguntzarekin. Euskal kultura zabaldu eta ikus-entzunezkoen ekoizle gazteei laguntza ematea da ekimenaren helburua. Horretarako, ikus-entzunezko proiektuak ekoizteko 4.000 euroko sari bi banatuko dira.

Benito Ansola 1928an jaio zen Lekeition. Humanitateak, Filosofia eta Teologia ikasi zituen Bergara eta Gasteizen. Lekeitioko parrokoa izan da 24 urtez, euskal zinema bete-betean bultzatu du, eta zinegintza irakaslea izan da Marinkako Lanbide Eskolan. 1978an, Euskal Zinema Bilera antolatzen hasi zen Lekeition, ikasle ohi batzuekin.

4.000 euroko saria lortzeko deialdian parte hartu nahi duten gazteek, ikus-entzunezko lanak

(fikzio, sorkuntza, animazio zein dokumentalak) egiteko proiektuak aurkeztu behar dituzte irailaren 28a baino lehen. Lanetan euskararen presentzia ezinbestekoa izango da.

Irabazlearen izenak abenduaren 1ean

Sarituen izenak 2012ko Lekeitioko Euskal Zine Bilerako itxiera ekitaldian jakinaraziko dira, abenduaren 1ean. Irabazleek, izendapena jaso eta 2013ko ekainaren 28ra bitarte-



Maitane Leizaola, Sonia Pérez Anguera eta Benito Ansola sarien aurkezpenean.

ko epea izango dute ikus-entzunezkoa amaitzeko.

lazko (eta lehen) edizioan David Zabalaren 'Ohe azpiko zera' eta Joseba Urberuagaren 'Izena duena' lanak izan ziren irabazleak. Bestetik, ikus-entzunezko horien laborpenak eta


Benito Ansolari buruzko informazio orokorra jaso nahi izanez gero, www.kameratoia.com/benitoansola webgunea bisitatu daiteke.

Lekeitioko Euskal Zine Bilera

Benito Ansola Sariez gain, edozein adinetako profesioanal eta amateurrei (mailak bereizita) zuzendutako euskarazko film laburren lehiaketan parte hartzeko aukera luzatzen du Lekeitioko Euskal Zine Bilerak. Gutxienez 30 minutuko lanak irailaren 7ra arte aurkeztu daitezke. Informazio gehiago lortzeko www.zinebilera.com webgunera jo.



Benito Ansola
Sariak





MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Inskripzio epea zabalik!



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

> Gradurako Egokitze Kursoa irakasleentzat

Eskoriatza EKAINAK 7 osteguna, 18:00

Goi Eskola Politeknikoa

> Biteri eta Arina Ikastetxe Nagusia

Arrasate EKAINAK 9 larunbata, 10:30

902 110 436 www.mondragon.edu/atesi

+ OSASUN GAZDA

Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

miren albistegi sojo
HELVIDE ETA TELEFONO BERRIAK
Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAÑA
HORTZ KLIKA

ARAT Hartz Klinika

Hartz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Hartz, begarria eta kaskoak barneko hartzetako zentroa.

943 20 18 81

m bista eder

Irribarreak gazteu egiten gaitu

Implante eta Hartz-Estetikako zentroak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca
DOKTOREA
644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika
Tel. / Faxes: 943 03 33 03
Fermin Calbeton, 6 - 1. A
clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika
Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. Tel. 943 208552
A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak
Hartz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental
EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urklizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hartz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Implanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
* Logopedia
* Inkontinentzia urinarioak
* Kirol medikuntza
* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Legun, 6 behea - Tel. - Fax. 943 906 044
www.clinica-abontza.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tlf.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

FISIOTERAPIA

ENKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zkia. OSTEOPATIA NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA

S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

Fisioterapia

fisio&más
Masajearazko Aholkuntza eta Fisioterapiaren Zerbitzua

- * Esku Terapia
- * E.P.I.® (Tendinitis tratamendua)
- * Esku Drainatze Linfatikoa
- * Mesoterapia

– Kirol Berregokitzea
– Osasunerako ariketa agindua

Tx4 Gimnasioa **Aupa Zen**
Ibar Kale, 3 Jausoro, 1
EIBAR ELGOIBAR
667 95 36 28 943 74 34 40

Podologoak


BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGIA
ERDIKO KALEA

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

Psikologoak

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA

 **Arrate**
Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
a_garitaonandia@hotmail.com

Okulistikak


Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82


Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmología Clínica

Plaza Busto, 2 - 2º
Tfnak: 943 201 544
www.clinicainrecalde.com

Podologoak


- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA
AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia


T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93

PODOLOGOA

Maidier
Lopez
Etxeberria


Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

 **PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

943 101 201


BURUZ
GARUN-GIMNASIOA

Buruaren aktibitateari eusteak dementzia izateko arriskua gutxitzen du, ez baitugu ahaztu behar estimulatu ezean neuronak atrofiatu egiten direla

- Taldeentzako ikastaroak
- Banakako saioak
- Familia orientabidea

San Agustín, 2 (0 lokala) -EIBAR-
www.buruzgimnasiocerebral.com

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa


Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

Psikologoak

 **AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloak
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
--- (Ume eta helduendako) ---

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ez. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalera 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

Radiologia

MADINA
RADIOLOGIA

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan oinarrituta den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ez. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu:
deitu 943-206776
telefono zenbakira

Buruz-buruko txapelketa nagusiak hitzordu handia du Astelenan

FINALERDIETAKO ASTEBURU HONETAKO PARTIDU BAKARRA HARTUKO DU KATEDRALAK domeka arratsaldeko jaialdian. Martínez de Irujok eta Idoatek jokatuko dute



norgehiagoka hori eta hortik irtingo da Aspe enpresaren finalista. Beste finalerdia, Asegarceko Bengoetxea VI.aren eta Olaizola II.aren arteko lehia izango duena, hurrengo astebururako atzeratu dute, Aimar Olaizolak eskumako besoan duen gainkarga dela-eta. Atzo eguerdi aldean aukeratu zituzten finalerdirako pilotak bai Idoatek eta bai Irujok. Jaialdiko partidu nagusiaren aurretik, promesa mailako beste finalerdi bat izango da, Untoria eta Ezkurdiaren artekoa azken hau; eta, amaitzeko, Gorka-Cecilio eta Mendizabal III.a-Pascual bikoteen arteko lehia ikusi ahal izango da.



Urrezko domina Ane San Martin gimnastarentzat Gipuzkoakoan

AURREKO ZAPATUAN BERGARAN AMAITU ZEN GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO GIMNASIA erritmikoko txapelketan, Ipurua taldeko jubenil eta kadete mailakoak podiumean izan ziren. Jubenil mailako banakako A txapelketan, gainera, San Martinek urrezkoa eskuratu zuen uztaiarekin egindako lanarengatik; Graxi Arregi, bestalde, bigarrena izan zen aparatu berarekin eta 3. postuan amaitu zuen B txapelketako sailakpen orokorrean. Taldeka zilarrezkoa jaso zuten ei-

bartarrek. Kadete mailan, berriz, Maialen Oregik eta Irene Pérezek osatutako bikotea 2. postuan geratu zen.

Ikasturtea amaitzeko, eta ohiturari jarraituz, erakustaldi erronda hasi dute Ipurua gimnasia erritmikakoek. Mallabian izan ziren domekan eta, uztailari begira, atek zabalik jardunaldia ere prestatzen dihardu klubak. Dena dela, kirol hau praktikatu nahi duten guztiak gimnasiaipurua@hotmail.com helbidera idatzi dezakete informazio gehiago jasotzeko.



Gipuzkoako Kopa bi asteburuan Eibar Eskubaloientzat


SENIOR TALDEAK PARTIDU EZINHOBEA JOKATU ZUEN DOMEKA GOIZEAN aurreko asteburuan Espainiako 1. mailara igotzea lortu zuen Elgoibarko Alcorta Forging Group taldearen aurka; Imanol Alvarez entrenatzailearen esanetan, *"kalifikazioa ematerakoan, 10a merezi izan zuten jokalarri guztiak, Elgoibarren bertan irabazteko gauza izan gara-eta"*. Eibartarrak 22-24 nagusitu ziren Kopa bereganatzeko eta, horrela, aurretik Ligan irabazi-

tako tituluari beste bat gehitu zioten. Gehiago oraindik: denboraldi guztian partidu bakar bat galdu barik! Kopa txapelketan, gainera, Espainiako 1. eta 2. mailako taldeak izan ditu aurkari eta taldearen benetako maila erakusteko balio izan du.

Tekniker Eibar Eskubaloiko jubenilek, bestalde, Zumarragan jaso zuten txapela han jokatutako hiruko lehiaketan: Urola Aranzadiri 10-19 irabazi ondoren, Ereintza Aguaplast 16-12 gainditu zuten.

Ziarran triatletak Gipuzkoako txapela jantzi zuen Hondarribian

ZAPATUAN JOKATUTAKO HONDARRIBIAKO TRIATLOIAREN LAUGARREN EDIZIOAN JOKOAN ZEGOEN Gipuzkoako sprint distantziako txapela ekarri zuen Eibarrera Ane Ziarran gure herriko triatloi taldeko ordezkariak. Ziarranek ordubete, 17 minutu eta 24 segundo behar izan zituen proba amaitzeko eta hamar segundoko tarte atera zion bigarrenari; txapela lortzeaz gain, proba ere berak irabazi zuen. Gizonezkoetan, berriz, Nicholas Kasteleinek irabazitako lasterketan, 3. postuan sailkatutako Mikel Otaegik jantzi zuen txapela.



EzDok Koskorri ezaria jartzeko prest

KOSKORREK SENDO EUSTEN DIO DENBORALDI OSOAN ERAKUTSI DUEN NAGUSITASUNARI eta, foball-zaletuen Kiroljokoa ligan egindako bidetik, Kopan ere finalerako txartela eskuratu du, finalerdiatan Txokori 4-1 irabaziz. EzDok, gutxiago ez dela-eta, ondo nagusitu zitzaion Azkena Kaltoni (3-0). Kopako finalak, beraz, badiu protagonistak: neurketa bihar jokatuko da, goizeko 10.30etatik aurrera. Aurretik, gaur bertan, foball-zaletuko denboraldi amaierako afaria egingo da, El Caserío tabernan.



EIBAR GOLF - PITCH & PUTT TALDEA DA KLUBAREN IZENA eta pare bat astetan beste hiru bazkide egin dituzte, aurretik bidalitako oharrean hemeretzi zirela esaten zutenen: *“Guztiak federatuak: 14 gizonetzko, hiru emakume eta neska eta mutil bana”*, Manu Fernández presidentea dioskunez. Estatuak ere eginak dituzte eta euren blogean (<http://eibargppt.blogspot.com.es/>) 2.000 bisita inguru izan dituzte azken bi hilabeteetan -*“EEEBBetatik, Koreatik, Filipinetatik eta Eskoziatik jarri dira harremanetan gurekin”*- eta Facebook-en (<http://www.facebook.com/eibar.egpt>) berrehun lagun inguru egin dituzte dagoeneko.

Orain arte egindako ibilbidea ez zuten bar hasi; hala ere, ekainaren 30ean egingo dute aurkezpen modukoa Eibarren, Ipuruako anexoan eskainiko duten ikuskizunarekin. Horretarako, *“PGAko Espainiako presidentea ekarri nahi dugu eta, arratsaldeko 16.00etan hasita, ikastaro antzerakoa egingo dugu bertara joaten direnekin eta asmoa dugu ere kamisetak eta banatzeko zozketa bidez”*. Antolatzaileek diotenez, hiru proiektu landuko dituzte bertan, *“alfonbra bereziak erabiliz eta sariak izango dira banderara gehien gerturatzen denarentzat eta zuloetan bola gehien sartzen*

dituenarentzat; hortik aparte, beste torneo bat izango da guraso eta seme-alabak osatutako ekipoen artean”. Golf - Pitch & Putt klubeko partaideek, kirol baloreekin batera, beste hainbat puntu ere azpimarratu nahi dituzte: *“Naturarekin harremanetan gaude eta, horrez gain, errespetua eta lagunak lantzen dira: zeozergatik deitzen zaio zaldun-jokoa”*. Jantzkerari dagokionez, *“etiketa-arauak”* ere badituzte; baina, beste kirol batzuekin parekatzerako orduan, *“jokatzeak ematen duen lasaitasuna eta ohiko zereginetatik deskonetatzea”* dira balio aipagarrienak.



Sari bat baino gehiago irabazi dituzte Pitch & Putt taldekoek.

Pitch & Putt: Adin guztietarako eta naturan praktikatzeko aukera ematen duen golf antzerako kirola

Badago beste berezitasunik: *“Zu zara zure aurkaria; ez duzu zertan beste baten aurka jardun beharrik. Zure buruarekin duzu erronka”*, dioskue klubekoek. Modalitate biek badihardute ere, klub honetakoek pitch & putt-ean zentratu dira gehienbat, *“batez ere, adin guztietakoek parte hartzeko aukera gehiago eskaintzen duelako”*. Golfaren ondoan, beste kirol honetan ibilbideak laburragoak dira eta *“zuloak par 3koak eta inoiz ere ez dira gainditzen 120 metroak. Irlandan jaio zen modalitate hau eta kataluniarrek sartu dute gure inguruan, eurak bihurtuz munduko onenak: 40.000 lizentzien bueltan dabilta Herrialde Katalanetan”*. Hemen ere bertako arautegiari jarraitzen diote eta, kluba osatzeaz gain, mailari erreparatzen badiogu, bikain dihardute eibartarrak: azken denboraldian klubeko zortzi jokalarik irabazi dituzte jokatutako lau torneoak: Oñatik Irelorea (hor prestatzen dira Eibarko taldekoak), Mungiako Urgoitiko Jauregia, Dimako Dima Golf eta Gasteizko Seminariokoa. Horrez gain, Ipar Zirkuitoko beste hiru torneo ere bereganatu dituzte azken denboraldian. Ez ahaztu, beraz, beste kirol batean sakontzeko aukera: *“Maisu Handiak”* ikuskizuna zain duzue, ekainaren 30ean, Ipuruako anexoan.

Asola-Berri izango da hiru-txirloko Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldiko protagonista

GIPUZKOAKO 43. EDIZIOAREN EGUN HANDIA OSPATUKO DUTE ASOLA-BERRIN bihar eguerdiko 12.30etatik aurrera. Aurten Bolari Eguna bertan hartzeaz aparte, sari berezia ere elkarrekin jasoko du, 50 urte betetzen dituela-eta. Lehiaketa ere puri-purian dago, azken aldian sailkapenak asko estutu baitira. Horrela, Asola-Berriko Sergio Rodríguezek txirilo bakarreko aldea ateratzen die Bittor Ugarteburu taldekideari eta Floreagako Gorka Etxaniz; bikoteka, berriz, Floreaga bolatokiko Beñat Astigarra-

ga eta Arkaitz Caballero dira liderrak eta txirilo bira dago Asola-Berriko Bittorren bikoteka (Ugarteburu eta Astigarraga). Emakumezkoetan argi nagusitzen da Olaitz Rodríguez eibartarra eta taldeka Asola Berri A-k lau txirloko aldea kentzen dio San Miguel A-ri.

Behin tiraldia amaituta, parrokoak erabakiko dira eta horrek paso emango dio Azitain Jatetxean egingo duten bazkariari. Bazkal ostean sari banaketan ordua helduko da: Asola-Berri orogarria jasoko du,



Giro izango da bihar Asola-Berriko bolatokian.

maila bakoitzeko irabazleak bere txapela eta, ondoren, bertsoek eta musikak hartuko dute protagonismoa.



Eibarko mendi inguruak ikutu berezia izango dute domeka goizean.

Deporreko Finalistaren Egunak Arrate kirolez jantziko du domekan

URTEROKO OHITURARI JARRAITUZ, EKAINAREN LEHENENGO DOMEKA aprobeztatuko dute Eibarko Klub Deportibokoek euren egun handia ospatzeko. Arrate izango dute gune nagusia, han egingo baitira mendizaleendako domina banatzea eta bazkaria; hala ere, haraino heldu aurretik, Eibartik abiatuta, mendi-ibilaldiek eta roll-eski igoerak inguruak "Depor izpirituaz" jantziko ditu. Normala denez, mendi-ibilaldiarekin hasiko da eguna: Deportiboaren aurrean 8.15etan batutakoek Santa Kurutz-Kalamuako Parlamentua-Kalamua-Arrate ibilaldia egingo dute. Horrez gain, mendi batzordekoek haur eta gurasoentzako ibilaldia ere antolatu du: bigarren hori egiteko autobusak izango dira doan 09.00etan, Ego-Gainen hartu eta Ixuaraino joateko (hori bai, autobuserako ize-

na eman beharko da aurretik Deporren). Behin Ixuan, handik Kalamua-Akondia-Aizketa-Arrate ibilbidea osatuko dute. Hirugarren irteera bat ere izango da: eski batzordekoek antolatuta eta Itzioko parketik abiatuko den roll-eski igoera.

Bestelako ekitaldiak eguerdi inguruan abiatuko dira: 11.45-etan Caeloren omenezko pilota-partiduak jokatu dira Arrateko frontoian, pilota batzordeak antolatuta; handik ordu erdira, Kezka Dantza Taldearen emanaldia izango da eta horrek eguneko ekitaldi nagusienetakoa emango dio paso. Hor mendiko dominak banatuko zaizkie haur eta helduei. Eta egitarauko azken ekitaldia zelaian egingo den bazkaria izango da; 14.30etan hasiko da eta txartelak salgai daude Deporren (12 euro helduen kasuan eta 7 haurren).

Eibarrek 2. B mailan jardungo du hurrengo denboraldian ere



AZKEN PARTIDUETAN TALDEAK SENDOTASUNA ERAKUTSI ARREN, aurrean freskotasan falta ere nabari izan da eta Eibar KE-ren talde nagusiak 2. B mailan jarraituko du hurrengo denboraldian, Lugorekin jokatuako partidu bietan gol bat sartzeko gauza ez baita izan. Aurreko zapatuan Ipuruan jokatuako itzulerako partiduan eibartarrek agindu zuten, baina aukera garbirik egin barik. Behin denboraldia amaituta, entrenatzaile berria zein izango den zain daude zaletuek, Manixek ez baitu jarraituko.

Alebin mailako neskak hirugarren Gipuzkoako atletismo txapelketan

ALDATZE ETA ITURBURU IKASTETXEETAKO NESKEKIN OSATUTAKO Klub Deportiboko taldeak eskolarteko txapelketa horretan aurkeztutako seikoteak maila bikaina erakutsi zuen eta, horrela, podiumaren hirugarren koskara igotzea lortu zuten. Taldea Nerea Etxanizek (luzera), Marina Lahidalgak (60 metro), Nerea Olabarrik (altuera), Alicia Rom-ek (60 metro hesiekin), Amaia San Martinek (1.000 metro) eta Elena Susaetak (pisua) osatu zuten.



Jardunaldi bikaina eibartarrentzat Udaberriko xake txapelketan

KLUB DEPORTIBOKO XAKELARIEK LAU GARAIPEN ETA PORROT BAKARRA IZAN ZUTEN Groseko Udaberriko Txapelketaren 6. jardunaldian. Horrela, Edu Olabek diada batean irabazi zion Easoko Lazkanori eta Asier Etxagibelek hiru ordu behar izan zituzten Elizondo donostiarra garaitzeko; tartean izan ziren Alex


Aranzabalen eta Jon Aranaren garaipenak. Jose Antonio Garridori egokitu zitzaion oraingoa partidua galtzea.

Asteburu honetan jokatu den azken txandaren bezperan, Etxagibel arrasatearra da Deporreko ordezkari onena, 6. postuan; Aranzabal eta Olabe berdinduta daude, 13. eta 17. postuen artean sailkatuta.

Afizionatu mailako hiru pilota partidu gaur Astelenan

NARBAIZA KLUB DEPORTIBOKO KADETEAK ZUMARRAGAKO HERRERAREN KONTRA hasiko du gaurko jaialdia Astelenan, 19.00etan. Jarraian, gazteen mailako ordua iritsiko da, bi partidurekin: Zubizarretak Zestoako Pérez izango du aurkari eta Larraurik Legazpiko Aierbe. Andonegik, Agirresarobek, Lantzek eta Bengoetxeak kanpoan jokatu dute jardunaldi hau. Domekan, berriz, Caelo Memoriala izango da jokoan Arraten: gazteen mailan Zubizarreta-Agirresarobe eta Andonegi-Lantz bikoteen

artekoari helduen mailako Larreategi-Bengoetxea eta Unamunzaga-Egañaren artekoak jarraituko dio.



20 urte bete ditu Goruntz abesbatzak eta, euren ahots zuriei laguntzeko, Easo abesbatzako kideekin kontzertu berezia eskainiko dute datorren asteko barixakuan, 20.30etan, San Andres elizan. Lorea Ojanguren zuzendari eta Josefina Pereda idazkariarekin egon gara abestiz beteriko 20 urte hauetaz berba egiteko.

- Tangoak dioen bezala, "20 urte ez dira ezer"?

Asko dira! Gauza asko pasa ditugu urte hauetan, esperientzia asko eta, orain, zuzendari gaztea daukagun arren, kide gazteak ere behar ditugu. Oso zaila da kide berriak ekartzea, baina saiatzen ari gara. Borondate-indarra eta denbora libreduki edukirik behar duzu, obligazioa delako. Eta, noski, abestea gustatu behar zaizu. Badago abestea gustoko duen jendea, baina lagun artean edo modu lasaian. Abesbatzan aritzea ezberdina da, hainbat gauza ikasi behar direlako eta abar: beste kontu bat da.

- Nola gogoratzen dituzue abesbatzan emandako urte hauek?

Abestea gustoko genuen emakumeak ginen eta horregatik sortu genuen taldea. Ez genuen parrokiako abesbatza izan nahi, baidarik eta ekintzetan parte hartzen duena, kanpora irtetzen dena, eta abar. Oroitzapenak zoragarriak dira.

- Kanpora irtetzearen asmoa bete duzue: Eskozia, AEB... kanpoan izan zarete.

Urtero bidaiak bat egiteko konpromisoa hartu genuen. Abesteko asmoarekin bidaiatu dugu beti, ez bidaiatzeagaitik bakarrik. Beti konpromiso bat lotu izan dugu herrialde hartako batekin. Helburu bezala hartzen genuen kontu hori: entseguetara zoazenean interesik ez baduzu, ez zoaz hainbeste gogorekin edo gehiago egiten duzute huts. Aurtentzen, ordea, ez dugu bidaiak egingo, gure 20. urteurrenarengatik Easo abesbatzarekin Eibarren emanaldia eskaintzea pentsatu genuelako. Luxua da guretzat.



LOREA OJANGUREN & JOSEFINA PEREDA (Goruntz):

"Guretzat luxua da Easo-rekin abestea"

- Atzerrira egindako bidaien artean, zein izan da bereziena?

New Yorkekoa. Patrizio Deunaren katedralean abestea zoragarria izan zen. Apaiak gaztekeraz aurkeztu ginduen eta, amaieran, Aita Gurea abestera gindoazenean, euskaraz egingo genuela aipatu zuen eta kantua amaitzean denak zutik ikustea izugarria izan zen. Kontzertu hobekak egin ahal izan ditugu, baina hangoa berezia izan zen.

- Ahots zurien abesbatza zarete. Zeintzuk dira horren ezaugarriak?

Emakumeak gara. Ahots zurien barruan umeak ere egon daitezke, baina nagusien ahots zurien barruan emakumeak sartzen dira.

- 2007an diskoa grabatu zenuten. Nola koa izan zen horren gauzatzea?

Oso neketsua! (barreak). Hainbat grabaketa eginda genituen, baina beti pentsatzen genuen disko atera behar genuela. 15 urte

bete genituen, diskoa grabatzeko aukera sortu zitzaigun eta animatu ginen.

- 20. urteurrenarekin disko berria egitea pentsatzen duzue?

Ez! Mendeurrenaren egiten dugunean grabatuko dugu (barreak). Lan handia eskatzen du, entsegu asko, dena oso jarraian eta, gainera, taldean gutxi gara eta, baten batek ezin badu grabaketara joan, zaila da. Diskoa eginda dagoenean zerbait polita dela ikusten duzu, baina lan handia du atzetik.

- Lorea Ojanguren da orain zuzendaria, baina aurretik beste batzuk izan dituzue. Alde handia dago batetik bestera?

Bai, bakoitzak bere estiloa auka. Alde izugarria dago zuzendari batetik bestera. Bakoitzak taldea eramateko bere era dauka, bere maniak eta gustuak... Eta kideentzat zaila da ohitura bihurtu duzuna aldatzea.

- Lorea, nola daramazu koroa zuzentzea?

Lorea: Ondo. Abesbatza ondo badoa, ni pozik eurekin.

Josefina: Lasaitasun handia ematen digu Lorea zuzendaria izateak, beti jakin izan baititu abestietako hiru ahotsak.

- Datorren asteko barixakuan Easo abesbatzarekin kontzertua eskainiko duzue. Nolako izango da?

Zoragarria! Lehenengo zatian guk jardungo dugu, gero eurak; eta, amaitzeko, batera abestuko dugu. Demaseko ilusioa egiten digu eurekin abestea, guretzat horrek dakarren ospearekin.




Norvegiako literatura oparitu diote liburutegiari

AURREKO BARIXAKUAN NORVEGIAKO ERREGE KONTSUL NAGUSIA

Juan San Martin Liburutegian bisitan izan zen. Bilboko kontsulatutik Norvegiako hainbat literatura lan ekarri zituen eta liburutegian gustura hartu zuten oparia: "Denera 19 titulo dira, horietako batzuk guretzat ezagunak diren egileek idatzitakoak eta, beste batzuk, berriz, deskubritzeke dauzkagun idazleena". Nobelen artean, Knut Hansum Nobel sariaren "Hambre", saritua izandako Lars Saabye Christensenen "El hermanastro", Unni Lindellen "La trampa de miel" edo Tarjei Vesaasen "El palacio de hielo" daude; kontakizun laburren artean, berriz, "Mujeres en los fiordos" eta Kjell Askildsenen

"Cuentos"; haur literaturako hainbat ipuin ere badaude, hala nola "La señora cucharita" (Alf Proysen), "El final del verano" (Stian Hole) edo "24 por segundo" (Bjorn Stotland eta Larsen Ellin).



Santurtziko portuan harrera egingo diete Mintza Egunera joandakoei.

Mintza Eguna bihar Santurtzin

HERRI GUZTIETAKO BERBALAGUNAK BATZEKO ASMOZ, BIHAR OSPATUKO DA MINTZA EGUNA ikasturte amaierako jaia Santurtzin. Aurten zazpigarrenez ospatuko den festarako egun osorako egitaraua prestatu dute antolatzaileek, Topaguneak, Bai Esan Santurtzin Euskaraz elkarteak eta AEK-k: 11.00etan ongi etorria egingo zaie parte hartzera joandako guztiei eta Santurtziko portuan hamaiketako hartuko dute. Jarraian ibilaldi gidatua eta ume eta gurasoentzat jolasak egingo dituzte. Ondoren etorriko dira mintza-bermuta, bazkaria, sari banaketa, euskal erromeria, mintza kalejira eta beste hamaika sorpresa. Antolatzaileek 400 bat lagun batzea espero dute eta han izango dira ...eta kitto! Euskara Elkartearekin Berbetan programan diharduten lagunetakoko asko ere.



Zeramika eta Dibujo Eskoletako ikasleen erakusketa

ATZO INAUGURATU ZUTEN PORTALEKO ERAKUSKETA ARETOAN ZERAMIKA ETA DIBUJO UDAL ESKOLETAKO ikasleen ikasturte amaierako erakusketa. Ikasturtean zehar ikasleek egindakoak ekainaren 17ra arte egongo dira ikusgai, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara. Bestalde, ikasturte berrirako matrikulazio epea ekainaren 4an zabalduko dute eta izena eman nahi duenak irailaren 7ra arte izango du horretarako aukera, Pegoran.



Los Secretos Coliseoan

LOS SECRETOS TALDEKOAK BIHAR COLISEOAN IZANGO DIRA, 22.00etatik aurrera "En un mundo raro" diskoa aurkezteko kontzertuan. Madrilen 80ko hamarkadan sortutako pop-rock taldeak Espainian bira egiten dihardu, 30 urteko ibilbidea laburbiltzen duen lana zuzenean eskaintzeko kontzertuak ematen eta Eibarren ere taldearen abestirik ezagunenak zuzenean entzuteko aukera izango da bihar gauean.




Barre ugari gaztetxean

AURREKO BARIXAKUAN "UN PAR DE 2" KONPANIAK GAZTETXEAN taularatutako T.S.N.A. antzezlanak ikustera joan zirenek ondo baino hobeto pasatu zuten eta ikuskizunak iraun zuen bitartean barre algarak nagusitu ziren.

Sanjuanetako egitarauak ekaina beteko du

MARTITZENEAN AURKEZTU ZUTEN SANJUANETARAKO EGITARAUA

Miguel de los Toyos alkateak, Esther Kareaga Euskara-Kultura batzordeburuak eta Jose Luis González Kultura teknikariak. Kriariaren eraginez bestelako kontuei Udalak egiten diharduen %10eko murrizketak jaietarako aurrekontuan ere eragina izango du (142.000-143.000 euroren bueltan ibiliko da). Hala ere, ekaina osoa hartuko duen egitarauak 60 musikari profesional, 88 ekitaldi (horietako 53 herriko talde eta elkarteek antolatutakoak), 6 kontzertu, 9 kalejira, 5 berbena, 3 kaleantzkeri ikuskizun, 3 enbolatu eta



Esther Kareaga, Miguel de los Toyos eta Jose Luis González "Poxpolo". / SILBIA HERNANDEZ

beste jarduera asko jasotzen ditu. Omenduko diren elkarteak, berriz, Armeria Eskola, Casino Artista Eibarrés, Asola Berri elkarte eta Goruntz abesbatza izango dira. Bestalde, jaietan kamiseta eta bestelako

ekin parte hartzeko asmoa duten koadrilekin bilera datorren astean, ekainaren 4an izango dela eman du aditzera Jai Batzordeak. Batzarra Portalean, 3. pisuko ikastaro gelan egingo da, 19.00etan hasita.

Kaleetan Kantuz-ekoen topaketa

BIHAR AGURTUKO DUTE IKASTURTEA KALEETAN KANTUZ-EKOEK

eta, horretarako,

beste herri batzuetako taldeekin elkartuko dira, eguna jai giroan eta kantuan emateko: 11.00etan

Untzagako jubilatutako etxean ekingo diote egunari, alkateak ongi-etorria egin eta, hamarretakoa hartu ostean, bakoitzak bere kantu-papela eskuan hartuta eguerditik aurrera Eibarko kaleetan kalejiran ibiltzeko. 14.00ak aldera berriz Untzagara bueltatuta, pare bat abesti gehiago eskaini eta bertan elkarrekin bazkaltzeko.



‘Kirola Euskaraz Bizi’ bihar Iturburuan

AURREKO ASTEBURUAN IKASTOLAKO TXIKIEN OLINPIADAK EGIN ZITUZTEN Iturburuan eta bihar, berriz, nagusien txanda izango da Euskaraz Bizi Jaialdian. Antolatzaileek, urteroko moduan, bertara joateko autobusa erabiltzeko eskara egin dute: 08.00etan hasiko da garraio zerbitzua (Untzaga-Iturburu, Urkizu-Iturburu) eta, hor-

tik kanpora, 11.00etan, 12.30etan eta 13.30etan ere autobusa egongo da (Egogain-Iturburu). Bueltarako autobusak, berriz, jarduera guztiak amaituta, 18.30etatik aurrera hasiko dira Iturburutik jaisuten. Bestela, egun osorako egitarauak kirol-proba eta bestelako lehiaketa zerrenda luzea hartzen du, azken urteotan antolatutakoen bidetik.

laburrak

LUR HIZTEGIAK ON-LINE

Eusko Jaurlaritzaren Kultura saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak sarean jarri ditu Lur Hiztegi Entziklopedikoa eta Lur Hiztegi Tematikoa, www.euskadi.net atarian.

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Udalak 2011-2012 ikasturtean Eibarko Udal Euskaltegian eta AEK-n euskara ikasten jardun duten guraso, dendari, ostalari, jubilatutako eta euskara plana duten enpresetako beharginentzat diru-laguntza deialdia kaleratu du. Eskaerak Pegoran aurkeztu behar dira (azken eguna abuztuak 31 da).

KIROL EGOKITUAREN JARDUNALDIA

Etzi Untzaga plazan hiru ordu iraungo duen jarduna prestatu dute Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federaziotik, kirol egokitua ezagutzera emateko helburuarekin. Egingo diren jardueren artean, slaloma, boccia, itsuen zirkuitoak, saskibaloia gurpil aulkian eta herri-kirolak.

JAVIER MARTÍNEZ ELKOROBARRUTIA "JAVILO"

2012ko maiatzaren 27an hil zen

*"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da,
galtzea hainbat zailagoa,
eta ahaztea ezinezkoa"*

ZURE KUADRILA



ASTEURU BETE-BETIA

IZAN DA atzian laga barri doguna, Klub Deportibuaeren eskutik ospatutako 47. Euskal Jaixari esker. Programia aurreko asteko eguenian hasi zan, Arrate Kultur Elkartearen eskindutako hitzaldixarekin, baiña ekitaldi gehixenak barixaku arratsaldian hasi eta domeka bittartian egin ziran: barixakuan eguzkixak gogotik jo eban arren, ume asko animau zan Kalian Jolasian ekimenarekin bat egittera. Zapatuan, barriz, Artisau eta Basarritarren azokiak eta bere inguruan girua sortzeko

antolatutako beste guztiak bete eben egunaren lehelengo zatixa eta zapatua agurtzeko, barriz, edarto ibilli ziran Untzagako karpan afaltzera eta kantuan jardutera animau ziranak. Antolatzailiak emondako datueri jarraituta, afarixak 260 bat lagun batu zittuan eta domekako bazkarixan be beste horrenbeste alkartu ziran. Edozelan be, domekako protagonista nagusixak, urteroko moduan, dantzak izan ziran. Aurten Ezpalak Zinta-dantzen Naziñuarteko Jaialdixa ospatu da eta Kezkako zein kanpotik gonbidautu etorritako dantzarixak kolorez gaiñezka egindako saio ikusgarrixa eskindu eben Untzagan: eibartarrak marka guztiak hautsi eta hiru alturatan banatutako 9 metro luzeko postiaren inguruan jardun eben dantzan, bertatik zintzilik eguazen 182 koloredun-zintteri helduta.



Agur kolorez gaiñezka egin dabon 47. Euskal Jaixari




ARGAZKIAK: Leire Iturbe

Argazki bilduma Etakitto-ren orrian, Facebook-en.




laztanak emoten...

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, URKO, atzo urtebete egin zenduan-eta. Famelixa guztiaren partez.




Domekan urtebete egingo dozu, MARTXEL. Irribarrez betetako urtia! Zorionak, eder hori!



Zorionak, IKER Arginzoniz Ricafranca, atzo hamabi urte egin zenduazelako. Etxekuen partez.




Zorionak, IRATI Arizmendiarieta Martín, bixar 8 urte egingo dozuz-eta. Muxu bat aitta eta amaren partez.



Zorionak, LEIRE, printzesa, domekan sei urte egingo dozuz-eta. Famelixaren eta, batez be, Aneren partez.




Zorionak, MARIA Aranburu, zure 7. urtebetetzian. Etorri amamaren etxera, katu-hankak jasotzera.




Zorionak, ALAITZ, martitzenian zortzi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Ongietorri gure artera, MARKEL, eta zorionak Kristina eta Jon bere gurasueri hain mutil edarra ekartziagaittik.



Zorionak, ANDER, gure mutil haundixak martitzenian zazpi urte egingo dittu-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Angelaren partez.



Zorionak, ANA, merezittako opor luziak heldu jatzuz-eta. Oso ondo pasa daizula domekan etxeko danekin.



Zorionak, UXUE eta MIKEL, atzo bost urte egin zenduezen-eta. Famelixaren partez.

z i n e a C o l i s e o a n

(1 ARETOAN)

1ean: 22.30
2an: 19.45, 22.30
3an: 17.00, 20.00
4an: 20.30

"Los diarios del ron"

Zuzendaria: Bruce Robinson



(2 ARETOAN)

1ean: 22.30
2an: 19.45, 22.30
3an: 17.00, 20.00
4an: 20.30

"La pesca del salmón..."

Zuzendaria: Lasse Hallström



(ANTZOKIAN)

1ean: 22.30
3an: 17.00, 20.00
4an: 20.30

"Blancanieves y la leyenda"

Zuzendaria: Rupert Sanders



horoskopoa

ARIES

Esku artean duzuna hartu eta alde egiteko gogoia izango duzu, baina arazoei zuzen egin behar zaie aurre, ez ihes egin. Ondo moldatuko zara.

TAURUS

Temperaturak gora egiten dihardu ia egunetik egunera, beraz, horretarako prestatu behar zara. Arropa arina jantzi eta ur asko edan behar duzu.

GEMINI

"Horrelakoa da bizitza, egin ezazu behar duzuna". Arrazoiak zuten Negu Gorriak abestiak eta kaso egin behar diozu. Ez da horrela, akaso?

CANCER

Zaren modukoa izanda, zergatik hartzen dituzu zure kargu gero egin ahal ez dituzun gauzak? Ea orain nori egokitzen diozun ekimen hori egitea.

LEO

Hainbat gauza bete behar dituzu berandu egin aurretik. Azkar ibili beharko zara, bestela aukera ederra galduko duzu gauza polit bat lortzeko.

VIRGO

Barruan daramazun aktore/aktorea atera beharko duzu zure helburua lortzeko. Ea Oskarra lortzeko gai zaren. Dohaia soberan dituzu!

LIBRA

Sentitzen duzun horretan sinesten baduzu, aurrera egiteko gai izango zara. Ezin zara, orain arte moduan, besteen laquntzaren zain egon.

SCORPIUS

Zuzenketak egitea eta zure hutsak onartzea oso ondo dago, onerako bada behintzat. Gauza da ohartzea gauzak oker egin dituzula.

SAGITTARIUS

Konpetentzia gogorra izango duzu bere bihotza eskuratzeko. Dena dela, ez jokatu zikin, ondorioak okerragoak izango dira-eta. Izan betiko zaldun!

CAPRICORNIUS

Gonbidapen tentagarria jasoko duzu hurrengo egunotan. Onartu ala ez, hor izango da kokka! Alde biak aztertu eta zuzentasunez erabaki.

AQUARIUS

Azpijokoak, tira-birak, traizioak... zure bizitzak telenobela ematen du. Kontua da, kasu honetan, gidoia zuz idazten duzula. Eta zelako gidoia!

PISCIS

Urduritasuna izango da nagusi zure asteburuan, baina ilusioz egindakoak emaitza zoragarriak izango ditu. Bejondeizula, merezi duzu-eta!

Barixakua 1**AURKEZPENA**

19.00.- Gipuzkoako Foru Aldundiak egitasmo estrategikoak herritarren artean ezagutzera emateko bilera irekia, Martin Garitano diputatu nagusiaren eta beste diputatuaren parte-hartzearekin. Armeria Eskolan.

DANTZA

20.00.- Biraka Dantza Taldearen emanaldia. Sarrera: 3 euro. Coliseo Antzokian.

Zapatua 2**KIROLA EUSKARAZ BIZI**

08.00.- Garraio zerbitzuaren hasiera (Untzaga-Iturburu, Urkizu-Iturburu).

08.30.- Argazkiak.

09.00.- Kirol lehiaketaren hasiera: eskubaloia-saskibaloia-pelota. DBH + 6. maila.

10.00.- Parte-hartzaileen kalejira.

10.30.- Pelota, foballa, saskibaloia.

11.00.- Garraio zerbitzua (Egogain-Iturburu).

11.15.- Patinaia.

12.00.- Bolei-hockey-sokasaltza.

12.30.- Garraio zerbitzua: Egogain-Iturburu.

12.30.- Sokatira DBH.

12.45.- Aerobitoia.

13.00.- Abiadura eta erreleboak.

13.30.- Garraio zerbitzua (Egogain-Iturburu).

13.30.- Atsedenaldia.

15.00.- Foballa azkenak (LH).

16.15.- Adolfo Jainagaren soinujoaleak.

16.45.- Txinga-eroate, sokatira, kaskara-bilketa.

17.15.- Krosa.

18.00.- Sari-banaketa eta agurra.

18.30.- Bueltarako autobusak.

KALEETAN KANTUZ

11.00.- Kaleetan Kantuz-ekoei origarriak eta hamarretakoa banatzea. Untzagako jubilatutuek.

12.00/14.00.- Eibarko kaleetan kalejiran ibiliko dira, abesten.

14.00/14.30.- Untzagako jubilatutuek pare bat abesti eskaintzea.

15.00.- Bazkaria.

18.00.- Agurra, Untzagan.

UMEENDAKO TAILERRA

18.00.- 3-12 urte bitarteko neska-mutikoentzat ingurumenaren gaineko eskulan tailerra. El Corte Inglés-ean (terrazan)

KONTZERTUA

22.00.- Los Secretos. Sarrerak: 30 eurotan salgai. Coliseoan.

Domeka 3**KLUBAREN EGUNA**

08.15.- Deportibotik abiatuta mendi ibilaldia, Santa Kurutz, Kalamuako Parlamentua - Kalamua - Arrate. Mendi Batzordeak antolatuta.

09.00.- Haur eta Gurasoentzako ibilaldia: Ixua -Kalamua-Akondia-Aizketa-Arrate. Ego-gainetik Ixua autobusa dohain. Autobuserako Klub Deportiboan eman beharko da izena. Mendi Batzordeak antolatuta.

09.30.- Roll Ski igoera Itzioren parketik, Eski Batzordeak antolatuta.

12.00.- Caeloren omenezko pilota-partidua Arrateko frontoian, Pilota Batzordeak antolatuta.

12.30.- Kezka Dantza Taldearen emanaldia eta jarraian haur eta nagusiei mendiko dominak banatzea.

14.30.- Bazkaria Arrateko zelaian. Bazkarirako txartelak (12 euro nagusiak, 7 euro haurrak) salgai daude Deporreko tabernan.

IBILALDIA

10.00.- Ibilaldira joateko autobusaren irteera. Ego-Gainetik (buelta 19.30etan).

JARDUNALDIA

11.00/14.00.- Kirol egokitua ezagutzera emateko jardunaldia: slaloma, boccia, itsuen-zirkuitoak, saskibaloia gurgildun aukian eta herri-kirolak. Untzagan.

TXIRRINDULARITZA

15.00.- Sanjuanetako LXXVII. Txirrindularitza Sari Nagusia, gazteentzat. Krono-igoera: Eibar-Unbe. Antolatzailea: Eibarko Txirrindulari Elkarte. Untzagatik irtenda.

Astelehena 4**ESKOLARTEKO ANTZERKIA**

15.00.- "Baserriko mamua", "Parre egiten ez zekien printsesa", "Organizazioa" (La Salle Ikastetxea, Eibar). Hezkuntza Esparruan.

SANJUANETAKO BILERA

19.00.- Sanjuanetan parte hartuko duten koadrilekin bilera, Jai Batzordeak deituta. Portalean (ikastaro gelan).

Martitzena 5**MAHAI-INGURUA**

11.00.- Etika, balio eta hezkuntzari buruzko mahai-ingurua. Parte-hartzaileak: Federico Mayor Zaragoza, Jonan Fernández eta Angel Toña. Moderatzailea: Mariano Ferrer. Armeria Eskolan.

Eguaztena 6**IKASTEN**

09.30.- Hondarribira ibilaldia (Jaizkibel, Higer eta Amuitz magaletik ibilaldia, 6'8 km). Irteera Ego Gaineko autobus geltokitik.

DANTZA


19.00.- Eibarko Dantza Garaikide taldearen umeen emanaldia. Sarrera: 3 euro. Coliseo Antzokian.

Eguena 7**ESKOLARTEKO ANTZERKIA**

15.00.- "Bederatzi ez da bederatzi", "Tangala danba" (Aldatze ikastetxea, Eibar). Hezkuntza Esparruan.

DANTZA

20.00.- Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia. Sarrera: 3 euro. Coliseo Antzokian.



erakusketak

- Ekainaren 3ra arte
JULIAN OCHOAren "Cuba" argazki erakusketa.
Arrate Kultur Elkartean.
- Ekainaren 17ra arte
ZERAMIKA, MARRAZKI ETA PINTURA UDAL ESKOLETAKO ikasturte amaierako erakusketa.
Portalean.

HILDAKOAK

- Isabel Carballo Blanco. 91 urte. 2012-V-16.
- Mari Tere Osoro Azkarate. 84 urte. 2012-V-23.
- Juan Manuel Azpiazu Arrieta. 67 urte. 2012-V-24.
- Juan Jose Moralejo Alvarez. 70 urte. 2012-V-25.
- Gaspar Alvarez Lucio. 94 urte. 2012-V-25.
- Genaro Azkarraga Fuldain. 86 urte. 2012-V-26.
- Luis M^a Agirre Bidosola. 65 urte. 2012-V-27.
- Javier Martínez Elkorobarrutia. 60 urte. 2012-V-27.
- Francisco Fernández Martínez. 78 urte. 2012-V-29.
- Francisca Asla Alberdi. 92 urte. 2012-V-29.
- Ignacio Goikoetxea Makazaga. 88 urte. 2012-V-30.
- M^a Josefa Usobiaga Osa. 86 urte. 2012-V-30.


JAIOTAKOAK

- Aitor García Hannover. 2012-V-18.
- Claudia Arias Toledo. 2012-V-22.
- Xabier Gijón Gutiérrez. 2012-V-24.
- Martin Gijón Gutiérrez. 2012-V-24.
- Ekhi Castro Puyol. 2012-V-24.
- Noa Larrañaga Corredera. 2012-V-25.
- Izaro Gómez Chimeno. 2012-V-25.

SUDOKUA

4			8	2				7
	6	1		7				5
						4		
			7			6		
7	5						9	3
		2		8				
		9						
2				1		5	4	
1				9	7			8

DENBORAPASAK



AURREKOAREN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunerok: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunerok: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibar erdi aldean (Ubitxa). 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Bizitzera sartzeko moduan. Oso merke. Tel. 685-732596.

– Pisua salgai Eibar erdi aldean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta trasteroa. 130 m². Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.

– Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailuarekin. 150.000 euro. Tel. 672-622774.

– Atikoa salgai Eibarren, Ardantzan. 72 m². Logela bat, egongela, sukaldea eta komuna. 17 m²ko terraza. Berria. Hegoaldera begira. Garajea eta trasteroa aukeran. 212.500 euro. Tel. 647-952677.

– Pisua salgai Amañako plazoletan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. 100.000 euro. Tel. 685-728995.

1.2. Errentan

– Oporretarako apartamentua alokagai Ezkaray-n. Prest 4 lagunentzat. Igogailua, garajea eta igerilekua. Tel. 639-176239.

– Pisua alokagai Elgetan. Ia berria. 2 logela, egongela-jangela, sukalde osotua eta bi komun. Tel. 606-083992.

– Apartamentu txikia alokagai Donostian uztaileerako. Hondartzaren ondoren. 3-4 lagunentzat. 1.400 euro lau aste. Tel. 675-712886.

– Hiru logelako pisua behar dut Eibarren. Tel. 652-532589.

– Oporretarako pisua alokagai Santonñan. Logela bi. Inguru lasaia, hondartzetatik gertu. Tel. 669-980932.

– Pisua alokagai Ubitxa kalean. 2 logela. Igogailua eta kalefakzioa. Sartzeko moduan. Tel. 685-732596.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Karro-denda salgai. Oso egoera onean. Sekulako aukera. 1.200 euro. Tel. 617-808785.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Jose Antonio Gisasola kalean. Tel. 943-201140 eta 610-698277.

– Behaldea alokagai Ubitxan. 100 m². Argi-instalazioa eta komunarekin. Tel. 617-688311. Maria.

– Garajea alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, ... Edozein ordutegi eta eguntan. Tel. 689-847947.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 646-821678.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Esperientzia. Tel. 686-077316.

– Emakumea eskaintzen da goizez edozein lanetarako. Tel. 943-127018 eta 635-555040.

– 34 urteko neska euskaldun arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioa eta esperientzia. Tel. 650-455685.

– Hezkuntza Esparruan bizi den neska arduratsua eta dinamikoa eskaintzen da umeak zaintzeko. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 658-757251.

– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 654-349366.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 696-509360.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 695-303534.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.

– Neska eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 648-873547.

– Estetizista euskalduna eskaintzen da erlaxatzeko masajeak eta makilajeak egiteko. Esperientzia. Tel. 617-718035.

– Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernetan, garbiketara eta mendian lan egiteko. Erreferentziak. Tel. 682-290521.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 658-757251.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-849391.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 686-052084.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 679-946934.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-257815 eta 692-332871.

– Mutila eskaintzen da taberna eta jangeletan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.

– Gizonezkoa eskaintzen da edozein pintore lanetarako. Tel. 622-573180.

– Emakumea eskaintzen da udan umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia asko. Tel. 680-463892.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 943-821537.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 697-730662.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 636-517025.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 647-175093.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 608-147559.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 638-249735.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-181350.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 648-603029.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-176549.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 636-423493.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 675-607031.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 669-966611.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-887814.

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Gidatzeko karnetarekin. Tel. 632-798768.

– Arotza eskaintzen da. Esperientzia. Tel. 654-453268.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Biolin klaseak ematen dira. Adin guztietako ikasleak. Metodo erraza eta dibertigarria. Merke. Tel. 679-740061.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Gurrildun silla estua salgai. Berria. Tel. 661-164231.

– Taberna itxi dugula-eta, kafetegirako makinaria eta altzariak salgai. Tel. 676-753898.

– 2. eskuko Bugaboo-bee ume karroa erosiko nuke. Tel. 678-045605.

– Bikiendako bi kapotadun aulkia salgai. Fishwell markakoa. 450 euro. Tel. 669-346335.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Zapatu gauean Euskal Jaiko karpan jertse beltz luzea aurkitu nuen eta jertse beltz motza galdu. Tel. 656-704387.

6.4. Bestelakoak

– Egunero Eibartik Donostiara lanera joateko jende bila nabil. Eibarren 07.00etatik irten eta Donostiatik (ospitaleatik) 15.00etan bueltatzeko. Tel. 656-764762.

Lanerako gertu!

2012
2013



➤ Oñati gestio
heziketa

MGEP
Mondragón Goi Mailako Heziketa Zikloak

Izen-ematea

Maiatzaren 28tik Ekainaren 5era

Goi Mailako Heziketa Zikloak

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> • Administrazio eta Finantza • Zuzendaritza Heziketa • Salmenta Heziketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektrotécnikak eta Automatizazioak • Automatizazio eta Robotika Industriala • Sareko Informatika Sistemak Administrazioak • Fabricazio Heziketako Oinarria • Fabricazio Heziketako Produktibitate Programazioa • Heziketa Industriala
<p>www.mondragon.edu/ogh info.ogp@mondragon.edu 943 71 00 09</p>	<p>www.mondragon.edu/gmha gmha.ngop@mondragon.edu 943 71 21 91</p>




Matrikula
ONGI ETORRI
zabalik

BIENVENIDO
WELCOME
BENVINGUT
مرحبا بكم
BIENVENUE
歡迎
WILLKOMMEN
BINE AI VENIT
BEN-VINDO

**2012-ko UDAKO
IKASTAROAK**

MATRIKULATZEKO EPEA
Ekainaren 4tik 20ra arte

- Euskalduntze eta Alfabetatzea
- 1., 2. eta 3. maila (EGA) prestatzeko ikastaroak
- Titulu Ofizialak
- Goizez, 4 orduko ikastaroak
- Ekainaren 26tik uztailaren 23ra
- Irailean jarraitzeko aukera
(azterketa aurreko egunetan, egunero 2 ordu)



**EIBARKO
UDAL**
EUSKALTEGIA

Eibarko Udalak eta HABEK
diruz lagundutako zentroa

Etorri eta galdetu!
16 urtetik gorakoentzat

Bista Eder, 10
-PORTALEA-



euskaltegiaelbar@telefonica.net
Tfnor: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89

“

EZ NAIZ EGUN OSOAN
ETXEAN EGOTEN,
BAINA EGUNERO
NAHI DUT
ETXEKO JANA



ALFA 100

ALFA 100

ALFA 100



HUTSEAN UNTZIKATZERU BAKARRA
APROPOSA DUKU PERTSONA
BARDIZAHENTZAKO.

ALFA 100: ZENBAITTA 1001
KUMUTEL, HIRUTA ARTILAZEN
ETA OSABITZAROKUJETA.

ALFA 100: ZENBAITTA 1001
KUMUTEL, HIRUTA ARTILAZEN
ETA OSABITZAROKUJETA.



ALFA

www.alfacosmetics.com

ALFA 100: ZENBAITTA 1001 KUMUTEL, HIRUTA ARTILAZEN ETA OSABITZAROKUJETA.